

PROIEKTUA: INMIGRANTEENTZAT ETA ETXEBAKOENTZAT "HOTELA" ETA JANTOKI SOZIALA

9) FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure funtsezko jarduera arazoak konpontzea da. Izan ere, gaur egun, inmigrante eta etxebako asko daude bizi garen gizartean, eta horiek, arazoak dituzte haien egunerokotasunean. Ez dituzte baliabide nahikorik bizitzeko eta gutxiago lan on bat bilatzeko eta soldata bat jasotzeko.

Horregatik, gure proiektuarekin, etxe bat ematen diegu denboraldi baterako eta denboraldi horretan, ogibide batean lan egiteko behar dituen ezagutzak ematen saiatzen gara. Horrela, haien bizitzan duten arazoetariko batzuk konpontzen saiatzen gara nahiz eta erreza ez izan.

